

**OHIKO BATZAR NAGUSIAREN
ONARPENERA JARRI BEHARREKO
ERABAKI-PROPOSAMENAK**

(2024ko maiatzaren 30a)

1. EROSKI KOOP.E.REN OHIKO BATZAR NAGUSIA ETA EZOHIKO BATZAR NAGUSIA ERATZEA

Lehenengo puntu honetan, eta legezko betebeharra den neurrian, batzarraren deialdia iragartzeko eta jendaurrean jartzeko formalitateak bete direla egiaztatuko du Batzarreko Lehendakariak. Era berean, Batzarrean bozkatuko diren erabakiei buruzko dokumentazio osoa bazkide guztien esku, eta zehazki, delegatuen esku jarri dela ere egiaztatuko da.

Lehenengo puntu honetan, ez da beharrezkoa inongo erabakirik hartzea.

2. BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO HIRU BAZKIDE IZENDATZEA.

Urtero bezala, Batzarraren gai-zerrendaren lehenengo puntua legez eta estatutuz ezarritako betebeharrak betetzera bideratua dago; hau da, hiru bazkide izendatzea Batzar honetako Akta sina dezaten, Lehendakaritzarekin eta Idazkaritzarekin batera, legean jasotzen den eduki osoa eta erabakiak hartzeko modua betetzen dituela egiaztatuz.

Ezer erabaki baino lehen, aurreko Batzar Nagusiaren Akta onartu dela jakinarazi ohi da; kasu honetan, 2024ko urriaren 10ean egindako ez ohiko Delegatuen Batzarrean, hain zuzen ere. Akta hori legez eta estatutuz ezarritako betebeharrak betez egin eta onartu zen.

Ekitaldi honen Aktarekin ere berdintsu egin ahal izateko, batzarrean dauden hiru pertsona hautatzea proposatuko da, Batzar honen akta Lehendakaritzarekin eta Idazkaritzarekin batera sina dezaten. Hau izango da

ERABAKIA:

Bakarra. - ***"Estatutu Sozialen 52. artikuluan 9. apartatuan ezarritakoaren arabera, bilera honetan dauden __ (3) __ izendatzen dira, Batzar honen Akta onartu eta sinatu dezaten, Lehendakariarekin batera".***

3. 2023KO EKITALDIARI DAGOZKION SOZINETATEAREN URTEKO KONTUAK ETA KUDEAKETA-TXOSTENA, ETA, HALA BADAGOKIO, KONTU ETA KUDEAKETA-TXOSTEN BATERATUAK AZTERTZEA ETA, BIDEZKOA BADA, ONARTZEA

Kontseilu Errektoreak, urteko kontuei eta kudeaketa-txosten indibidual eta bateratuei buruzko akordio honi dagokionez, 2023ko ekitaldiari dagozkion Urteko Kontu Indibidual eta Bateratuak aurkezten ditu, Kontseilu Errektoreak 2024ko apirilaren 25ean onartutako formulazioaren ondoren, onarpena jaso dezaten, eta jakinarazten du KPMG Auditores SL auditoretza-enpresak behar bezala ikuskatu dituela kontu horiek.

Kontseilu Errektoreak 2023ko ekitaldian zehar bere kudeaketan izandako gertaerarik garrantzitsuenak aurkeztuko ditu.

Honako hauek proposatuko dira:

ERABAKIAK:

- 1) **"Eroski Koop.E.ren Urteko Kontuak onartzea 2024ko urtarrilaren 31n itxitako ekitaldiari dagokionez, baita Sozietateko kontu-auditoreek egiaztaturiko Kudeaketa Txostena ere".**
- 2) **"Eroski Koop.E.ren Urteko Kontu bateratuak onartzea 2024ko urtarrilaren 31n itxitako ekitaldiari dagokionez, baita Sozietateko kontu-auditoreek egiaztaturiko Kudeaketa Txostena ere".**

4. 2023KO INFORMAZIO EZ-FINANTZARIOARI BURUZKO TXOSTENA AZTERTZEA ETA, BIDEZKOA BADA, ONARTZEA

Kontseilu Errektoreak, Ez-finantzazko Informazioaren egoerari buruzko txostenari buruzko erabakiari dagokionez, Gai-zerrendako aparteko puntu gisa aurkeztu du Ez-finantzazko Informazioari buruzko Txostena, abenduaren 28ko 11/2018 Legean (Merkataritza Kodea aldatzen duena) ezarritakoarekin bat etorriz, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duena, eta uztailaren 20ko 22/2015 Legea, Kontu Auditoretzarena, jakinaraziz BUREAU VERITASek egiaztatu duela, ondore horietarako, egiaztapen-zerbitzuko emaile independente gisa.

Beraz, hauek dira proposatuko diren

ERABAKIAK:

- Bakarra. - "2023ko ekitaldiari dagokion Informazio ez-finantzario bateratuaren egoerari buruzko Memoria onartzea".**

5. 2023KO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEA

Gai-zerrendako puntu honetan, 2023ko ekitaldian lortutako emaitzak banatzeko proposamena egiten da. Emaitzak positiboak eta 78.532.469,69 eurokoak dira, eta aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak konpentsatzeko proposatzen dira. Aurretik, soberakin garbia zehaztu baino lehen, funts propioen parte diren Mendeko Finantza Ekarpenek zor dituzten interesak kendu dira, 8.092.968,09 euroko zenbatekoarekin. Ordainketa hori 2023ko Batzar Nagusian erabaki zen (orain gauden 2024ko ekitaldiari dagokiona ere bertan onartu zen), eta 2024ko urtarrilean egin zen ordainketa.

ERABAKIA:

- 1) **"Estatutu Sozialetan adierazitakoaren arabera, 2023ko ekitaldiaren emaitza positiboa (78.532.469,69 euro) banatzea onartzea, honela:**

SOBERAKIN GORDINAK:

2024ko urtarrilean ordaindu ziren funts propioen parte diren Eroskiren Mendeko Finantza Ekarpenen (EMFE) interesak ordaintzea.

| | | |
|---|---------------|---|
| SOBERAKIN GARBIAK | 8.092.968,09 | € |
| <i>Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak konpentsatzea</i> | 70.439.501,60 | € |

6. ORDAINDUKOEN PROGRAMAREN EZARPENA ETA PROGRAMAREN MENDEKO JAULKIPENAK ONARTZEA

Errenta Finkoko Merkatu Alternatiboan (MARF) ordaindukoen programa bat ezartzea eta horren mendeko jaulkipenak onartzea proposatzen da.

Proposamena egiteko arrazoia da sozietateari une oro banku-finantzaketaren osagarria den finantzaketarako baldintzarik onenak eskuratzeko ahalmena ematea eta lehen mailako balore-merkatuetan negozioa behar bezala garatzeko beharrezkoak diren funtsen bolumen nabarmena lortzea, kostu lehiakorretan eta egungo lehia-inguruneak eskatutako malgutasunarekin eta erantzun-gaitasunarekin. Ordaindukoen bidez lortutako funtsak nagusiki aktibo zirkulatzailerako finantzatzera bideratuko lirateke.

Horrenbestez, erabaki hau proposatuko da:

Lehenengoa.- Onartu egiten da (i) ordaindukoak jaulkitzeko programa bat ezartzea Errenta Finkoko Merkatu Alternatiboan ("**MARF**"), eta (ii) programaren mendeko ordaindukoen jaulkipena (hurrengo berritzeak barne), programaren zenbateko nominalaren baliokidea den gehieneko zenbateko nominalarekin (hau da, 100.000.000 euro) behin edo gehiagotan (adostuta horri buruzko ahalordetzeen ondorioz), gehienez ere 4 urteko epean, ordaindukoen programa MARFen sartzen den egunetik kontatzen hasita, eta bi kasuetan Programaren Oinarrizko Ezaugarrien mende.

Ordaindukoen programak eta programaren kargura jaulkitzen diren ordaindukoek, gerora garatzeko aukera alde batera utzi gabe, oinarrizko termino eta baldintza hauek izango dituzte ("**Programaren oinarrizko ezaugarriak**"):

1. **Jaulkitzailea.** Eroski Kooperatiba Elkarte.
2. **Jaulki beharreko baloreak.** Ordaindukoak.
3. **Gehieneko zenbateko nominala.** Programaren kargurako une bakoitzean zirkulazioan dauden ordaindukoen jaulkipenen gehieneko zenbateko nominala 100.000.000 eurokoa izango da.
4. **Ordaindukoen epea.** Ordaindukoen muga-egunak hiru eta 731 egun naturalen bitartekoak izan daitezke.
5. **Interes-tasa.** Ordaindukoak deskontuarekin jaulkiko dira. Interes-tasa nominala jaulkitzaileak eta entitate laguntzaileak edo ordainduko bakoitzaren hartzaileak adostutakoa izango da, eta ordainduko bakoitzerako edo ordainduko-multzo bakoitzerako banaka ezarriko da.

6. **Negoiaziorako onartzea.** Ordaindukoak negoziazorako onartzeko eskatu ahal izango da MARFen edo bestelako merkatu arautu batzuetan, negoziazio-sistema multilateraletan edo erabakitzen den beste merkatu antolatu batzuetan.
7. **Legea eta aplikatu beharreko jurisdikzioa.** Programaren mendeko jaulkipenak Espainiako legeria erkideari lotuta egongo dira, eta Madrilgo, Bilboko edo programan ezartzen den beste jurisdikzio baten mende egongo dira.
8. **Ordaindukoak adierazteko modua.** Ordaindukoak kontuko idatzoharren bidez adieraziko dira. Baloreak Erregistratu, Konpentsatu eta Likidatzeko Sistemen Sozietatea SAU ("**Iberclear**") izendatzen da ordaindukoen kontabilitate-erregistroaz arduratzen den entitate gisa. Hori horrela izanik ere, bestelako adierazpen-modu batzuk ezarri ahal izango dira, ordaindukoak negoziazorako onartuko liratekeen merkatuak hala eskatuz gero.
9. **Jaulkipenen xede diren inbertitzaileak.** Inbertitzaile kualifikatuak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko ekainaren 14ko 2017/1129 (EB) Erregelamenduan aurreikusitakoaren arabera soilik; erregelamendu hori eskaintza publikoaren edo merkatu arautu batean baloreak kotizatze onartzearen kasuan argitaratu beharreko liburuxkaren arabera, eta 2003/71/EE Zuzentaraua indargabetzen duena (haren definizioak kontralderdi hautagarriak eta bezero profesionalak hartzen ditu barnean, bertan aurreikusitako baldintzetan).
10. **Indarraldia.** MARFen erregistratutako informazio-oinarriko dokumentuaren (Information Memorandum) indarraldia urtebetekoa izango da MARFen sartzan denetik kontatzen hasita, hargatik eragotzi gabe urteroko berritze posibleak.
11. **Bermeak.** Jaulkitzailearen ondare osoak bermatuko ditu kapitala eta ordaindukoen interesak. Halaber, ordaindukoek beste entitate batzuen berme pertsonalak izatea erabaki ahal izango da.

Bigarrena.- Erabakitzen da Kontseilu Errektoreari baimena ematea, bertako kide bakoitzaren edo hirugarren batzuen ordezte- edo azpieskuordetze-ahalmenarekin, (i) Batzarrak erabaki ez dituen ordaindukoen programaren termino, baldintza eta alderdi guztiak finkatzeko; eta (ii) jaulkipenak exekutatzeko, ordaindukoak zirkulazioan jartzeko eta horien termino eta baldintza eta Batzarrak erabaki gabeko alderdi guztiak (ekonomikoak, legezkoak edo beste edozein) finkatzeko; eta, bi kasuetan, akordio hau betearazteko beharrezkoak diren alderdi osagarri guztiak gauzatzeko –batzuk aipatzearen, baina horietara mugatu gabe–:

- i. Akordio honek zehaztu gabeko ordaindukoen programaren terminoak, baldintzak eta alderdiak finkatzea eta osatzea (programaren mende jaulkitzen diren ordaindukoek izango dituzten bermeak barne).
- ii. Egokitzen jotzen dituen ordaindukoen programaren edozein aldaketa,

egokitzapen, gehigarri edo eguneratze negoziatzea, egitea eta onartzea, urteroko berritzeak barne, bai eta (i) eta (ii) ahalmenei dagokienez beharrezkotzat edo egokitzen irizitako beste edozein neurri hartzea ere.

- iii. Egin beharreko ordaindukoen jaulkipenak eta horiek egiteko unea zehaztea, ordaindukoak zirkulazioan jarritz.
- iv. Egitea erabakitzen diren ordaindukoen jaulkipenen termino eta baldintza eta alderdi guztiak zehaztea (barnean hartuz –batzuk aipatzearen, baina horietara mugatu gabe– haien zenbatekoak, jaulkipen-datak, amortizazio-datak, jaulki beharreko baloreen kopurua, baloreen balio nominal unitarioa, jaulkipen-prezioa edo interes-tasa).

Kontseilu Errektoreari emandako baimenak (bertako kideetako bakoitzean edo hirugarren batzuetan ordeztzeko edo azpieskuordetzeko berariazko ahalmenarekin), halaber, barnean hartzen du Kontseilu Errektoreari mugarik gabe eskuordetzea (bertako kideetako bakoitzean edo hirugarren batzuetan ordeztzeko edo azpieskuordetzeko berariazko ahalmenarekin) ordaindukoen programari eta ordaindukoen jaulkipen bakoitzari buruzko akordioak interpretatu, aplikatu, inplementatu eta garatzeko legeak eskatzen dituen ahalmenik zabalenak, eta, era berean, akordioak behar diren alderdi guztietan zuzentzeko eta osatzeko ahalmena eta akordioak behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren lege-agindu guztiak betetzeko ahalmena ere bai. Alde horretatik, Kontseilu Errektoreak (bertako kideetako bakoitzean edo hirugarren batzuetan ordeztzeko edo azpieskuordetzeko berariazko ahalmenarekin) ordaindukoen programari eta ordaindukoen jaulkipenari buruzko akordioetako hutsuneak edo akatsak zuzendu ahal izango ditu.

7. ESTATUTU-, LEGE- ETA ANTOLAMENDU-XEDAPENAK

7.1. Ekarpenei buruzko erabakiak.

- a) **Baja eman duten bazkideen ekarpenak itzultzeko erabili beharreko gehieneko zenbatekoa zehaztea eta horiek itzultzeko erabakia hartzea.**

Estatutu Sozialen 23. artikulua ahalmena ematen dio Batzar Nagusiari urtero zehazteko zein den kapitalerako ekarpenen gehieneko zenbatekoa, Kontseilu Errektoreak 2024ko apirilaren 20a baino lehen baja eman dien bazkideei itzuli beharrekoa, haien ekarpenak itzultzeko erabakiaren zain badaude.

Kooperatiba saiatuko da, ahal den neurrian, konpainiaren ohiko martxan normalean jasotzen diren eskaerei erantzuten, eta hori kooperatibaren kaudimena eta etorkizuna zainduz egin ahal izateko, beharrezkotzat jotzen da gutxieneko kaudimen- eta likidezia-zenbateko bat mantentzea helburu duten irizpideak eta neurriak hartzea, baja hartu duten bazkideen ekarpenak itzultzeak kooperatibak xurgatzeko duen gaitasuna gaintu ez dezan.

Beraz, ekarpenak itzultzera bideratutako zenbatekoa Kontseilu Errektoreak zehaztutako kaudimen-atalasea eta likidezia-atalasea kontuan hartuta ezartzen da.

Era berean, Batzar Nagusiak kooperatiban baja hartu duten bazkideei egindako ekarpenak itzultzea erabaki ahal izango du.

Kontseilu Errektoreak, aurkeztutako eskaerak eta itzultzeko erabakitzeko dauden kapitalak oinarri hartuta eta Estatutu Sozialetan aipatutako eta ezarritako atalasean azterketa kontuan hartuta, hauek proposatzen dizkio Batzar Nagusiari:

ERABAKIAK:

- 1) "10.400.000 eurotan (hamar milioi eta laurehun mila euro) finkatzea 2023ko maiatzaren 25ean egindako Batzar Nagusiaren ondoren kooperatiban baja hartu duten bazkideen ekarpenak itzultzeko erabiliko den gehieneko zenbatekoa, bai eta Kontseilu Errektoreari 2024ko apirilaren 20ra arte eskatu zaizkion eta 2024ko maiatzaren 23a baino lehen onartu diren bajen kasuan ere".**
- 2) "2023ko maiatzaren 25ean egindako Batzar Nagusiaren ondoren kooperatiban baja eman duten bazkideei eta Kontseilu Errektoreari 2024ko apirilaren 20ra arte eskatutakoei eta 2024ko maiatzaren 23a baino lehen onartutakoei egindako ekarpenak itzultzea erabakitzea, guztira 10.400.000 (hamar milioi eta laurehun mila) euroko zenbatekora arte, Eroski Koop. E-ren Estatutu Sozialen 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.**
- 3) "2023ko maiatzaren 25ean egindako Batzar Nagusiaren ondoren kooperatiban baja eman duten bazkideen ekarpenak eta Kontseilu Errektoreak 2024ko maiatzaren 23ra arte adostu dituenak itzultzea ez erabakitzea, aurreko paragrafoan ezarritako zenbatekoaren gainerako zenbatekoan eta itzulketak-eskaeren zenbateko osora iritsi arte, Estatutu Sozialen 23. artikuluan ezarritakoa aplikatuz.**

b) Sozietateak Mendeko Finantza Ekarpenak Autozorro-erregimenean eskuratzeko baimena

Eroskik Finantza Ekarpenak jaulki zituen, eta 2002tik 2007ra bitartean merkaturatu zituen. Ekarpen horien jaulkipenari buruzko erabakietan, Eroskik konpromisoa hartu zuen merkaturatutako likidezia-maila jakin bati eusteko kapitalaren % 10aren baliokidea den zenbatekora iritsi arte titulua eskuratzu, existitzen diren tituluen trafikoa eskaintza eta eskari nahikoa sustatzeko xedearekin.

Konpromiso hori betetzen jarraitzeko, beharrezkoa da Batzar Nagusiak Ekarpen horiek eskuratzeko (nola zuzenenean hala sozietate filialetako baten bidez) Kontseilu Errektorearengan egindako delegazioa berritzea.

Hala, eta helburu horrekin, egokitzat jotzen da baimen hori berritzea, eta, beraz, honako hau proposatuko da:

ERABAKIA:

Bakarra. - "Kontseilu Errektoreari baimena ematea 2002, 2003, 2004 eta 2007ko Jaulkipenetako Mendeko Finantza Ekarpentak (MFEak) zuzenean edo bere taldeko edo lotetsitako beste edozein sozietateren bidez eskuratu eta zorroan mantendu ahal izan ditzan, gehienez Sozietatearen kapitalaren % 10eko zenbatekoan (ondore horietarako MFEen jaulkipen guztien zenbatekoa barnean hartzen da), egokitzat jotzen diren termino eta baldintzetan, eta indarrean dagoen legeriak ezarritako bermeekin. Sozietateak erosten dituen MFEen erosketako prezioa ezingo da izan MFEek merkatuan izan duten azken kotizazio-prezioa baino, edota, bestela, edozein likidezia-erakundek argitaratzen duen kotizazio-prezioa baino % 50 txikiagoa eta ez handiagoa. Salbuespen modura, sozietateak likidezia-erakundeekin egindako edo egin beharreko edozein kontraturen erosketa-prezioa, likidezia-erakunde horiekin egindako kontratuetan edo egingo diren kontratuetan erabakitzen den erosketa-prezioaren berdina izango da. Sozietateari MFEak erosteko ematen zaion baimen honek 18 hilabeteko gehieneko epea izango du".

c) Lan-bazkide berrien Nahitaezko Ekarpentak eguneratzea

Estatutu Sozialen 36.7 artikulua bazkide berrien nahitaezko ekarpentak Kontsumoko Prezioen Indizearen (KPI) arabera eguneratzeko aukera aurreikusten du. Eta, bestalde, Euskadiko Kooperatiben Legearen 61.4 artikulua xedatzen du Batzar Nagusiak urtero finkatu beharko duela nahitaezko ekarpen horien zenbatekoa.

Hortaz, 2024ko uztailaren 1etik aurrera sartuko diren bazkide berriek Sarrerako Kuota eta Nahitaezko Kapital gisa jarri beharko dituzten zenbatekoak ezarri behar dira. Aurten, iazko zenbatekoak % 3,2 eguneratu behar dira.

Beraz, hau da proposatuko den

ERABAKIA:

Bakarra. - "Lan-bazkideen Ekarpentak eguneratzea, Sarrerako Kuota gisa 2.473,86 euroko kopurua eta Kapital Sozialerako Nahitaezko Ekarpentak gisa 9.895,43 euroko kopurua ezarriz, eta, beraz, 2024ko uztailaren 1etik aurrerako alta-datarekin bazkidegai gisa sartzen diren bazkideek jarri beharreko Nahitaezko Ekarpentak Totala 12.369,29 eurokoa izango da.

7.2. Funts Propioen parte diren Mendeko Finantza Ekarpentak ordaintzea.

Estatutu Sozialen 39 bis artikuluan ezarritakoa betez, urtero erabaki behar da ea Funts Propioen parte diren Mendeko Finantza Ekarpentak ordainsaria sortzen duten ala ez. Kontabilitateko Nazioarteko Arauak indarrean sartu

zirenetik sortutako betebeharrak bat da erabaki hau, Mendeko Finantza Ekarpenera Funtsekin hartzeko.

2023ko Batzar Nagusia jada onartu zen 2024ko ekitaldiari dagokion MFEen ordainketa. 2025eko urtarrilaren 31n amaituko da, eta abonua egun horretan egin behar da.

Aurten, 2025eko ekitaldiari dagokion ordainketa erabakitzea proposatzen da. 2025eko ekitaldia 2026ko urtarrilaren 31n amaituko da, eta data hori da ordainketa egin beharreko eguna. Hori guztia zirkulazioan dauden MFEen jaulkipena arautzen duten baldintzetan ezarritakoaren arabera egingo da.

Ondorioz, hau da proposatzen den

ERABAKIA:

Bakarra. - "2007an jaulki ziren eta Funtsekin parte diren Mendeko Finantza Ekarpenera 2025eko ekitaldiari dagokion ordainketa onartzea. Ordainketa horren interes nominala eta zenbateko gordina jaulkipen-baldintzetan ezarritakoaren arabera kalkulatu beharko dira, eta 2026ko urtarrilaren 31n abonatu da".

8. ERREKURTSO-BATZORDEA BERRITZEA

Bazkideei arau-hauste astun edo oso astunengatik irekitako diziplina-espedienteetan ezarritako zigorraren kontrako errekurtsuak ebazten dituen kooperatibako organoa da Errekurtsu Batzordea, eta agortu egiten du barne-bidea.

Bertako kide titularrak eta ordezkariak Batzar Nagusia hautatzen dira, bozketa sekretu bidez. Eskubide osoko bazkide izan beharko dute, eta Estatutu Sozialetan ezarritako eskakizunak (antzinatasuna, kooperatibako esperientzia eta egokitasuna) bete beharko dituzte; gainera, beharrezkoa izango da hautagaiek bestelako kargu sozialik ez izatea.

Lan-bazkideen hiru ordezkariak eta bazkide kontsumitzaileen bi ordezkariak osatzen duten organo hau erdika berri behar da urtero. Kasu honetan, hiru hautagai izendatu behar dira (bi lan-bazkideen artean eta bat bazkide kontsumitzaileen artean), Batzarra egingo den lokalera sartu aurretik egingo den bozketa sekretu bidez. Azkenik, emandako botoen kontaketa egin ostean, hau da proposatuko dena:

ERABAKIA:

"Egindako bozketaren ondorioz, hauek dira Errekurtsu Batzorderako izendatuak, Estatutuetan ezarritako gehieneko bi urteko eperako"

| Kontsumo-bazkideak | Lan-bazkideak |
|---------------------------|----------------------|
| <i>Titularra</i> | <i>Titularra</i> |
| | |
| <i>Ordezkoa</i> | <i>Ordezkoa</i> |
| | |

9. KONTSEILU ERREKTOREA BERRITZEA

Kontseilu Errektoreko kide titularrak eta ordezkoak Batzar Nagusiak hautatzen ditu bozketa sekretu bidez, eta eskubide osoko bazkide izan beharko dute eta Estatutueta ezarritako eskakizunak (antzinatasuna, kooperatibako esperientzia eta egokitasuna) bete beharko dituzte; beharrezkoa izango da, gainera, hautagaiek bestelako kargu sozialik ez izatea.

Bi urtean behin Kontseilu Errektorearen erdia berritzen da. Kontsumo-bazkideen artetik hiru hautagai izendatu behar dira, eta lan-bazkideen artetik beste hiru, batzar-aretorako sarreran bozketa sekretu bidez.

Azkenik, emandako botoen kontaketa egin ostean, erabaki hau proposatuko da.

ERABAKIA:

"Egindako bozketaren ondorioz, honako hauek dira Kontseilu Errektorera izendatuak, Estatutueta ezarritako lau urteko gehieneko eperako:"

| Kontsumo-bazkideak | Lan-bazkideak |
|---------------------------|----------------------|
| <i>Titularra</i> | <i>Titularra</i> |
| | |
| | |
| <i>Ordezkoa</i> | <i>Ordezkoa</i> |
| | |
| | |

10. KONTSEILU ERREKTOREARENGAN AHALMENAK ESKUORDETZEA

Gai-zerrendako puntu honetan, Batzar Nagusiak bere ahalmenak Kontseilu Errektoreari eskuordetzeko ohiko akordio bat proposatzen da, lege- eta estatutu-betebeharrak hobeto betetzeko xedez. Hori horrela, edozein kidek egiletsi ahal izango du eskritura publikoa, Batzar honek hartutako edozein erabaki jasotzen duena, eta interesa duen agintari, administrazio eta erregistro ororen aurrean egiaztatu ahal izango du.

Beraz, hau da proposatuko den

ERABAKIA:

"Kontseilu Errektoreko kide bakoitzari eta letradu aholkulariari eskuordetzea, horietako edozeinek, nahieran, komenigarriak edo

beharrezkoak diren garapen- edo betearazpen-jarduketak edo -kudeaketak erabaki eta egin ahal izan ditzan, Batzar Nagusiak hartutako erabakiak ahalik eta osoen exekutatzea lortzeko, dagozkion kontratu eta dokumentuak komenigarritzat jotzen dituen klausula eta baldintzekin sinatzea barne, bai eta interpretatzeko ere, erabaki horiek zuzentzea eta osatzea, eta berak hautatutako notarioaren aurrean agertzea eta jendaurrean jartzea, horretarako dagozkion eskritura publikoak egiletsiz, baita akatsak zuzentzeko edo argitzeko ere, eta akordioak erabat eraginkorrak izateko beharrezkoak edo komenigarriak diren jarduketa guztiak egitea, legez eska daitezkeen dokumentu guztiak erantsiz, bai eta gordailutzea eta/edo inskripzioa lortu arte behar diren kudeaketa guztiak egin ditzan ere, inskripzio partzialaren eskaera barne, erregistro interesdunetan, horiek edo beste edozein erakunde edo agintarik jaulkitako ahozko edo idatzizko kalifikazioak ikusita."

11. NORBERAK LEKARKEENA
